


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA, 2019KO MARTXOA

Euskal AEko industri jarduera %4,6 murriztu zen 2019ko martxoan

Industri produkzioaren indizeak %0,2ko gehikuntza izan du 2019ko lehen hiruhilekoan

Eustatek landutako datuen arabera, 2019ko martxoan %4,6 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2018ko hil beraren aldean. 2019ko lehen hiru hiletan %0,2ko hazkundea izan da 2018ko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %3,0 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa aurreko hilarekin, 2019ko otsailarekin alegia, alderatuta.



2019ko martxoan, 2018koaren aldean, zeinu ezberdineko eboluzioak daude industria-sektore handien artean: *Energia* %1,7 igo da, baina *Bitarteko Ondasunak* %6,4 jaitsi dira, *Ekipoko Ondasunak* %3,8 murriztu dira eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, %1,5 jaitsi dira. Horien barnean, *Kontsumo-ondasun Iraunkorrak* dira jaitsieraren eragileak, %13,8 murriztu baitira, zeren *Ez-iraunkorrak* %1,7 igo diren.

2019ko martxoko hil arteko aldakuntzak, 2019ko otsailaren aldean, zeinu negatiboko eboluzioak ditu industria-sektore handi guztietan. *Ekipoko Ondasunak* %4,9 jaitsi dira, *Bitarteko Ondasunak* %2,2 eta *Energia* %0,3. *Kontsumo-ondasunak*, guztira, %4,2 jaitsi dira, zeren *Iraunkorrak* %5,0 jaitsi diren eta *Ez-iraunkorrak* %4,0.

Euskal AEko industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkundeak 2019ko martxoan, urte artean: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*, %2,2; eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak*, %0.5.

Kontrako norabidean jaitsiera handienak urte artean hauek izan dituzte: *Metalurgia eta produktu metalikoak*, %8,1; *Garraio-materiala*, %6,8; eta *Makineria eta ekipoa*, %4,9.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-8,1
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	2,2
09 - Kautxua eta plastikoak	-2,8
13 - Makineria eta tresneria	-4,9
14 - Garraio-materiala	-6,8
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-4,1
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-0,1
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	0,5

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeka, martxoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Bizkaian, %0,5eko igoerarekin, baina %9,1eko jaitsiera izan da Araban %6,6koa Gipuzkoan.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2019ko Martxoa

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Mar2019 / Mar2018	A(Mar2019) / A(Mar2018)(*)	Mar2019 / Ots2019	Ots2019 / Urt2019
Indize orokorra				
Euskal AE	-4,6	0,2	-3,0	-0,9
Araba/Álava	-9,1	-3,8	-3,1	-1,6
Bizkaia	0,5	2,5	-2,9	-0,4
Gipuzkoa	-6,6	0,5	-3,0	-0,9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-1,5	2,8	-4,2	2,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-13,8	-4,9	-5,0	-3,0
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	1,7	4,7	-4,0	3,2
Ekipo-ondasunak	-3,8	1,9	-4,9	-2,7
Bitarteko ondasunak	-6,4	-1,2	-2,2	-1,2
Energia	1,7	-0,1	-0,3	1,0

(*) 2019ko urtarritetik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2018eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ohar metodologikoa: 2019ko martxoan aldatu da Industri Produkzioaren Indizeak (IPI) zerabilen oinarri-urtea. Oinarri berrian IPIren erreferentzia 2015. urtea da. Oinarriaren aldaketak ekarri du eguneratu dela Euskal AEko industria-sektoreko enpresa informatzaileen ordezkatzeko-panela, hala nola haztaperen-egitura desagregazio-maila guztietarako. Halaber, egutegi-eraginetako serie doituak eta urtaroen eraginetako serie doituak 2015. oinarri-urtetik JDemetra+ 2.2.1 softwarearen bidez lortzen dira, Eurostaten gomendioei kasu eginez urtaroen doikuntzak eta egutegikoak egiteko Europar Batasuneko estatistika ofizialetan.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62